

Prentsa oharra

Nota de prensa



2024ko udal zerga-arauak onartuta

Udal gobernuak udal-talde guztiekin hainbat akordio egin ditu, eta horiei esker, Udalak hasieran aurreikusitakoa baino milioi bat euro gehiagoko diru-sarrerak izango ditu

Donostiako Udalbatzarrak 2024ko udal zerga-arauak onartu ditu iraileko ohiko udalbatzarrean. Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok azaldu du, egindako aldaketei esker Udalak bermatuko dituela donostiar guztiei ematen dizkien kalitatezko zerbitzuak.

Zerga arauak onartzeko tramitazioa amaitu da Udal gobernuaren eta gainerako udal taldeen arteko hainbat akordiorekin. Hortaz, Udal gobernuak EH Bildu udal taldearen hiru Arau Proposamen babestu ditu.

Lehenengoak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarekin (OHZ) lotura du, eta ondorioz, etxebizitza hutsek ordaintzen duten errekaragoa %150 izatera pasako da – hau da, indarreko Foru Arauak baimentzen duen errekarago handiena –. Horrenbestez, Donostia legeak baimentzen duen maximora iristen den lehen Gipuzkoako udalherria izango da.

Bigarrenak Ekonomi Jardueren gaineko Zergarekin (IAE delakoa) lotura du, eta 2, 3, 4, 5 eta 6 kaleen kokapen indizea %3 handituko da. Eta hirugarrenak Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarekin lotura du, eta zerga honen barruan dauden mota guztiak %5 handituko ditu.

Era berean, Udal gobernuak EH Bildu udal taldearen bi zuzenketa onartu ditu, hain zuzen ere, Ibilgailuen gaineko zergari eta Ibilgailuak bide publikoan aparkatzeko tasari (TAO) buruzko zuzenketak.

Hortaz, ibilgailuek eta zilindrada handiko motorrek ordaintzen duten zerga %3 eta %4,8 artean handituko da, betiere zaldi fiskalak kontuan hartuta.

TAOri dagokionez, egoiliar txartela izateko tasa eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen duten pertsonen egoiliar txartela izateko ordaintzen duten tasa bere horretan mantenduko dira, eta aparkatze bereziaren kuota, aldiz, %2,5 – hasieran %5 handitzea zegoen aurreikusita –.

Bestalde, Udal gobernuak Elkarrekin Donostiak OHZri buruz aurkeztutako Arau Proposamena onartu du, eta ondorioz, etxebizitza hutsen errekaragoa hiriko etxebizitza parke guztiari zabalduko zaio, izan ere, 170.000 euroko balio katastralaren gutxienezkoa ezartzen zuen limitea bertan behera geldituko da.

Gainera, Elkarrekin Donostiak Udal Jabari Publikoa Okupatzeko Tasari buruzko beste Arau Proposamena onartuko du, eta ondorioz, terrazak jartzeagatik ordaintzen den tasa handituko da: %5 1, 2 eta 3 mailako kaleetan dauden terrazentzat; %2,3 4.mailako kaleetan dauden terrazentzat; eta %1,5 5 eta 6.mailako kaleetan dauden terrazentz.

Halaber, Udal gobernuak Elkarrekin Donostiak egindako Zerbitzu eta jarduerak emateagatik ordaintzen den tasaren gaineko zuzenketa onartuko du, eta ondorioz, ez

Prentsa oharra

Nota de prensa

dute tasa ordaindu behar izango %33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen, langabezian dauden pertsonen eta Diru Sarrerek Bermatzeko Errenta edota Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jasotzen duten pertsonen.

Udal gobernuak, orobat, Ibilgailuen gaineko zergari buruz PP udal talearen Arau Proposamena onartu du, hain zuzen ere, aurretik zuzenketa egin zion Arau Proposamena, eta ondorioz, isuriak gutxitzen dituzten ibilgailu hibridoek zergaren %75eko hobaria jasoko dute, eta aldiz, ibilgailu elektrikoek %90ko hobaria jasoko dute matrikulatu eta lehen hiru urteetan.

Zehatzago azalduta, aldaketa hauekin Udalak gutxi gora behera aurreikusitakoa baino milioi bat euro gehiagoko diru-sarrerek izatea lortuko duela – guztira 2023an baino 6 milioi euro gehiago gutxi gorabehera – eta horri esker, Udalak duen egoera finantzieroa mantendu ahal izango duela.

Aldaketa nagusienak:

Tasak

- Garabia: %7,5
- Hondakin bilketa: %5 etxebizitzak, %7 jarduerak
- Jabari Publikoaren Okupazioa:
 - Terrazak: 5% 1, 2 eta 3 mailakoak; %2,3 4 mailakoak, eta %1,5 5 eta 6 mailakoak
- TAO: %5 aparkatzeko tarifa guztietan. Egoiliar txartel arrunta eta Diru Sarrerek Bermatzeko Errentaren edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunen egoiliar txartela bere horretan mantenduko dira. Aparkatze bereziaren kuota %2,5. Udako egoiliar txartelaren tarifaren handitzea.
- Ura eta Saneamendua: %5

Zergak

- OHZ: batez beste %4. Etxe hutsen errekaragoa %150era igo. Balio katastralaren 170.000 euroko gutxieneko limitea bertan behera gelditu da etxebizitza hutsen errekaragoa aplikatzeko. Energia berriztagarrietan egindako inbertsioagatik hobariak handituko dira (gehinez %35).
- Ibilgailuen gaineko zerga: ibilgailuek eta zilindrada handiko motorrek ordaintzen dituzten zergak zaldi fiskal ezberdinen arabera %3 eta %4,8 bitartean handituko dira. Ibilgailu hibridoek %75eko hobaria jasoko dute; eta ibilgailu elektrikoek %90eko hobaria matrikulatu eta lehen hiru urteetan.
- Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga: %5.
- Ekonomi Jardueren gaineko zerga (IAE): 2, 3, 4, 5 eta 6 kaleen kokapen indizean %3 handituko da.